

ONOMASTIKAZ III. JARDUNALDIEN ONDORIOAK

Lizarra/Estella, 1990-II-28

1. Egun hauetan, Hizkuntzalaritza, Historia, Geografia eta antzeko sailetan ari diren ikerlariak Onomastika lanak ezagutu behar dituztela ezinbestekotzat jo da berriz ere; jakintza arlo bateko profesionalak burutzen dituzten azterketa eta ikerlanez beste arloetakoak balia deitezen.

2. Jardunaldietan parte hartu dutenek zera eskertuko liokete Euskaltzaindiari, alegia, alferrikako ahaleginik ez egiteko, partikularrek eta erakundeak burutzen ari diren eta Euskal Herriko Onomastikarekin zerikusia duten lan guztien (tesi, tesina, eta abarren) informazioaren bilketaz arduratzea.

3. Era berean, utziezinezko iruditzen zaigu Euskal Herriko Onomastikari dagokion bibliografia sistematizatzea, zeregin honek Eusko Bibliografiaren laguntza izango lukeelarik.

4. Gure azterketen gaurregungo egoeran egokiago iruditzen zaigu lehentasuna material bilketa sistematikoari ematea ikerketa lanei baino.

5. Ameriken Aurkikundearen V. Mendeurrenaren ospakizuna hurbil egoki, interesgarri deritzagu hurrengo Jardunaldietako gai nagusia euskalamerikar onomastika izateari.